

Ordizian, **bi mila eta zazpiko martxoaren 29an** UDALBATZARRAK **OHIKO BILERA** egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

**BERTARATUTAKOAK:**

**LEHENDAKARIA:**

Alejandra Iturrioz Unzueta and.

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Jose L. Ormazabal Garmendia jn.	EAJ	taldea	
J. Miguel Santamaría Ezeiza jn.	EAJ	taldea	
Joxe Arizmendi Berakoetxea jn.	EA	taldea	(boz)
Agurtzane Antoñana Arizmendi and.	EA	taldea	
Jesus M.Lariz Orbezabal jn.	EA	taldea	
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	PSE-EE(PSOE)	taldea	(boz.)
Julian Carrasco Obregon jn.	IU-EB	taldea	(boz)
Monica Marañon Basarte	PSE-EE (PSOE)	taldea	

**BERTAN EZ DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Ricardo Hueso Abancens	PP	taldea	(boz)
Manuel Iturrioz Perez jn.	EAJ	taldea	
Eneko Ándueza Lorenzo	PSE-EE (PSOE)		

**Behin-behineko IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea.

**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

**INTERPRETARIA:**

Garbiñe Mendizabal Mendizabal .



## **BERTARATZEAK ETA IRTEERAK**

- .- Julen Agirre Iturriotz jauna etorri da bilerara.
- .- 2.puntuan Agurtzane Antoñana anderea etorri da.
- .- 6.puntuan etorri da Joxe Arizmendi-

## **AZTERTUTAKO GAIAK**

### **EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

- 1.- 2007ko otsailaren 22ko bilkuraren akta onartu.  
..... orria
- 2.- 2006ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.  
.....
- 3.- Kreditu gehigarrien 3.zenbakidun espedientea.  
.....
- 4.- Kreditu gehigarrien 4.zenbakidun espedientea.  
.....
- 5.- Kreditu gehigarria onartzearen gainean Alkatearen 233.dekretuaren berri ematea.  
.....
- 6.- Zerbitzua kudeatzeko gomendioa Gipuzkoako Foru Aldundiari agintzeko eta dagokion Hitzarmena sinatzea.  
.....
- 7.- Telelaguntza zerbitzuaren Udal Araudia eta dagokion Ordenantza Fiskala onartzea.  
.....

### **AZKEN ORDUAN SARTUTAKO GAIAK:**

- 8.- GOIEKI SAr dagokion galera eta irabazien balantze eta kontua onartu.  
.....

## **GORABEHERAK**

## **GALDE-ERREGUAK**

## **ORDUTEGIA:**

HASIERA: 19,00 etan

AMAIERA: 19,25etan



Bilkurari hasiera eman eta gero, Lehendakariak lehenengo puntuaren berri eman du.

### **1.- 2007ko otsailaren 22an egindako ohiko bileraren akta.**

#### Proposamena

#### **2007ko otsailaren 22an egindako ohiko bileraren akta zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez dira izan.

#### Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andreak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 6 (EAJ 3, EA 1, PSE-EE/PSOE 1, IU/EB1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 1 (PSE-EE(PSOE) Marañon andrea ez zelako bilerara etorri)

**Beraz Alkate andreak aurkeztutako akta onartutzat jo du.**



Ondoren Alkate andreak eguneko aztergaien bigarren puntuaren berri eman du:

### **2.- 2006ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.**

#### Proposamena

Alkateak onartu ditu Berezko Aurrekontuaren likidazioak eta San Jose Egoitza eta Herri Antzokia erakunde autonomoetako aurrekontuenak, Gipuzkoako Toki-Erakundearen aurrekontua arautzen duen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 49.2 artikulua araberan, eta likidazio horien berri ematen zaio Osoko Bilkurari.

	Aurrekontu emaitza	Diruzaintzako Soberakin garbia
<b>Berezko Aurrekontua</b>	2.935.099,95	6.289.082,39
<b>San Jose Egoitza</b>	40.815,16	92.011,73
<b>Herri Antzokia</b>	-82.347,09	27.352,77

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa:soila.

#### Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

#### Alkate anderea

Alkate andreak 2006ko likidazioen berri eman du, bai Udalarena, baita Herri Antzokia eta San Jose Egoitza Erakunde Autonomoetakoak ere. Gainera, azaldu du Majori Kiroldegia S.L. eta Ordizia Lantzen S.A. udal elkarteen likidazio edo balantzeak beste prozedura bat daramatela.

**Udala jakinaren gainean dago.**



Segidan, Alkateak andreak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du.

### **3.- Kreditu gehigarrien 3.zenbakidun espedientea.**

#### Proposamena

2006an aurrekontuan kontsignaziorik gabeko gastuak egin ziren partida batzutan.

2006ko urtea ixteari ekin aurretik, ahal zen neurrian, gainditze horiek konpontzeko ahalegina egin zen, eta Kontabilitatetik 45.608,24 euroko fakturak kendu ziren.

Martxoaren 15eko Ogasun Delegazioan, gainditze guztiak finantzatzea erabaki zen, Jaialdiak partidei dagozkienak izan ezik, gainditzearen %50a finantzatuko da kasu horretan, eta gainerako, 2007ko kreditutik kendu beharko delarik, urtea joan eta urtea etorri, arau-hauste berean erortzen delako.

Gipuzkoako Toki-Erakundeen aurrekontua arautzen duen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34 artikulua araberan, 2007ko martxoaren 22an Plenorako Gaien Batzordeak gaia aztertu eta gero, honako hau onartzeko proposamena egiten zaio Osoko Bilkurari



AKORDIO PROIEKTUA.

**2006ko gastuak 2007ko aurrekontuan sartzea onartu, guztira 45.608,24 euro.**

**Gastu horiek finantzatzeko 2007ko aurrekontuan kreditu gehigarrien 3. espedientea onartu, guztira 36.155,83 eurokoa, gastu horiek partzialki finantzatzeko.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa:soila.

#### Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

#### Alkatea

2006ko gastu batzuk, aurrekontu-kontsignaziorik gabe egin zirenak, azaldu ditu, guztira 45.608,24.-€.

Aldi berean, 2007ko aurrekontuan kreditu gehigarrien 3.espedientea onartu da, guztira 36.155,83.-€ gastu horiek sartzeko finantziazio partzialerako.

#### Bozketa

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 8 (EAJ 3, EA 2, IU/EB 1 PSE-EE(PSOE) 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

**Beraz Alkate andreak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.**



Ondoren, Alkate andreak eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du.

#### **4.- Kreditu gehigarrien 4. zk.dun espedientea onartu.**

#### Proposamena

2007ko martxoaren 22ko Plenorako Gaien Batzordean atzera ezinezko hainbat behar kredituz hornitzeko beharraren berri eman zen.

Horien gainean eztabaidatu zen eta Batzordeak, aldeko irizpena ematea erabaki zuen.



AKORDIO PROIEKTUA.

**2007ko aurrekontuan kreditu gehigarrien 4.espedientea onartu, guztira 70.322,83.-euro.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa:soila.

#### Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkatea and.

Aurtengo aurrekontua onartu eta gero sortutako behar batzuk aurrekontuan sartu behar direla esan du, atzera ezinak direlako. Guztira 70.322, 83.-€

#### Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andreak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 8 (EAJ 3, EA 2, IU/EB 1 PSE-EE(PSOE) 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

**Beraz Alkate andreak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.**



Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du .

**5.- Kreditu gehigarria onartzearen gainean Alkatearen 233.dekretuaren berri ematea.**

**HONAKO HAU IKUSITA:**

San Jose Egoitzako sukaldea berritzeko obrei ekiteko beharra, guztira 177.525,01 €ko aurrekontuarekin.

Obrak egiteko %75eko diru-laguntza eman du Foru Aldundiak.



San Jose Egoitza Erakunde Autonomoak baliabideak ditu, esate baterako, Urdaneta kalea, 15 2.eko etxea, eta obren gainerako %25a finantzatzeko balioko lukeena, baina oraindik ez dago prest.

Alkatearen eskumena, 2007ko Aurrekontua Egiteko Oinarrietako 5.oinarrian ezarritakoa, kreditu gehigarrien espedienteak onartzekoa, beti ere aurrekontuaren %5a gainditzen ez duten kopuru pilatua bada.

## **HONAKO HAU ERABAKI DUT**

Onartzea 29.096.-€ko kreditu gehigarria, 822.313.82.01 partidarako, Tokiko Sektore Publikoko Erakundeei epe motzera emateko maileguetarako.

### Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez dira izan.

**Udala jakinaren gainean dago.**



Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du .

## **6.- Zerbitzua kudeatzeko gomendioa Gipuzkoako Foru Aldundiari agintzeko eta dagokion Hitzarmena sinatzea.**

### Proposamena

Telelaguntza-zerbitzuari esparru juridikoa emateko, EUDEL eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean lankidetzaz-erabakia izenpetu da. Erabaki horren arabera, Udal bakoitzak izenpetuko du Foru Aldundiarekin hitzarmen bat, eta horren arabera aginduko dio telelaguntza-zerbitzuaren kudeaketa.

Telelaguntza-zerbitzua kudeatzeko gomendioa gizarte zerbitzuetako urriaren 18ko 5/1996 Legeko 14.artikuluak dago ezarrita, baita gizarte zerbitzuko gaitan eginkizunak zehazten dituen uztailaren 30eko 155/2001 dekretuko bigarren xedapen gehigarrian ere.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 15.artikuluak arautzen duen esparru juridikoa da kudeatzeko gomendioa. Horren arabera, toki-erakunde batek agindu diezaioke beste Administrazio bati bere eskumeneko ekintzak egitea, eraginkortasunezko arrazoiengatik edo hori burutzeko behar diren bezalako baliabide teknikoak ez dituenean. Horrek ez du esan nahi eskumenaren titulartasunaren lagapena egiten denik. Gomendatzen duen erakundea, Ordiziako Udalak, segituko du telelaguntza-zerbitzuaren arduradun izaten eta, beraz, Foru Aldundiak burutuko duen ekintza sostengatzeko behar diren izaera juridikoko ekintza edo ebazpen jakinarazteko arduradun. Foru



Aldundia zerbitzuaren alderdi teknikora mugatuko da (erabiltzailea behar diren aparailuekin hornitzea eta aurkezten diren arreta-gunearen eta sortzen diren larrialdien kudeaketa).

Hori horrela, Plenorako Gaien Batzordeak honako hau proposatzen du

AKORDIO PROIEKTUA.

**1.- Gomendatzea udal eskumeneko telelaguntza-zerbitzuaren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiari.**

**2.- Dagokion Hitzarmena sinatzeko baimena eman Alkateari.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa:soila.

#### Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

#### Dubreuil jna.

Bere alderdiaren botoa aldekoa izango dela esan du, baina zalantza askorekin. Gizarte Zerbitzuen alorrean eskumen gehiegi agintzen direla uste du.

Bere ustez, Udala galtzen ateratzen da eskumenak agindu edo ordezkatzekoan, bai behintzat ekonomikoki.

Gizarte Zerbitzuetako Lege berria behar dela esan du argi eta garbi, eskumenen banaketa zuzen arautuko duena.

#### Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andreak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 8 (EAJ 3, EA 3, IU/EB 1 PSE-EE(PSOE) 2)

Aurkakoak: 1 (IU/EB 1)

Abstentzioak: 0

**Beraz Alkate andreak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.**





Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du .

## **7.- Telelaguntza-zerbitzua: Telelaguntza zerbitzuaren Udal Araudia eta dagokion Ordenantza Fiskala onartzea.**

### Proposamena

Gizarte zerbitzuko gaietan eginkizunak zehazteko uztailaren 30eko 155/2001 dekretuko 4.1.2 y 3.1 artikuluen arabera, udal eskumeneko zerbitzua da telelaguntza.

Gipuzkoako udalerriek Foru Aldundiari telelaguntza-zerbitzuaren kudeaketa gomendatzea eta telelaguntza-sare bakarra ezartzeak (antolaketa eta sisteman homogeneousekin), beharrezko egiten du Udal bakoitzak Araudi bateratu bat onartzea, EUDEL eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzartutakoaren arabera, zerbitzu hori arautuko duena.

Telelaguntza, Udal eskumeneko zerbitzu publikoa denez, berau emateagatik tasa bat ezarteko aukera du, Toki-Ogasuneko Legearen 20.artikuluak ezartzen duenaren arabera. EUDELek eta Foru Aldundiak telelaguntzaren Araudian azaltzen diren tasak ezartzea adostu dute. Hala ere, eraginkorra izateko, tasa horiek arautzeko Ordenantza Fiskala onartu behar da, edo udal zerbitzuak emateko tasak arautzeko gaur egungo 6.Ordenantza Fiskala aldatzea, eta horretan sartu telelaguntzaren zerbitzua emateagatik tasei dagokion atala sartu, aipatutako legeko 15. artikulua eta hurrengoak esaten dutenaren arabera.

Hori horrela, Plenorako Gaien Batzordeak honako hau proposatzen du

### AKORDIO PROIEKTUA.

**1.- EUDEL eta Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatutako telelaguntza-zerbitzua arautzeko Araudia onartu.**

**2.- 6.Ordenantza Fiskalaren aldaketa onartu, telelaguntza zerbitzua emateagatik tasak direla eta, eranskin bat sartzea, alegia; EUDEL eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean hitzartutakoak, hain zuzen.**

**3.- Ordenantza hori jendaurrera jarri beharko da berriro ere 6 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan, eta interesatuta daudenek aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei tartea eman, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik. Erreklamaziorik ez balego, Ordenantza behin betiko onartutzat joko litzateke, beste erabakiren beharrik gabe.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa:soila.



### Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez dira izan.

### Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andreak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9 (EAJ 3, EA 3, PSE-EE/PSOE 2 IU/EB 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

**Beraz Alkate andreak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.**



Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du, presazko izaeraz sartu delarik.

### **8.- GOIEKI SARI dagokion galera eta irabazien balantze eta kontua onartu.**

#### Proposamena

GOIEKI SAK aurkeztutako kontu-ikuskaritzako txostenaren berri eman da, 2006ari dagokiona, eta Plenorako Gaien Batzordeak aldeko irizpena eman diona, honako hau proposatzen da

AKORDIO PROIEKTUA.

**GOIEKI SARI dagokion galera eta irabazien balantze eta kontua onartu.**

**Alkate-Lehendakari andrea eskubideratu, Udal honen ordezkartzan aldeko botoa emateko.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Lehenik eta behin, aurkeztutako puntuaren presako izaera bozketapean jarri da.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa:absolutoa



### Bozketa

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9 (EAJ 3, EA 3, PSE-EE/PSOE 2 IU/EB 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak:

**Aurkeztutako puntuaren presako izaera onartu da.**

### Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez da izan.

### Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andreak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9 (EAJ 3, EA 3, PSE-EE/PSOE 2 IU/EB 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

**Beraz Alkate andreak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.**



Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du .

### **9.- Alkatetzaren 284 zenbakidun dekretuaren berri ematea.**

#### **284.DEKRETUA**

#### **HONAKO HAU IKUSITA:**

- Donostiako Administrazioarako 2. auzitegiaren probidentzia, zeinak Construcciones Brues eta ADU 18-La Modelo interbentzio eremuko Konpentsazio Batzordeak jarritako apelazio-errekurtsoaren berri ematen duen; errekurtso horrek Epaitegi horrek emandako 38/2007 auziaren aurka, 2004ko maiatzaren 12an Alkateak egindako 230.ebazpenaren aurka 242/04 eta 247/04 zenbakidun auzi-errekurtso pilatuetan.

- Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 85.2. artikulua.



## HONAKO HAU ERABAKI DUT:

\*242/04 eta 247/04 zenbakidun auzi-errekurtso pilatuetan emandako epaiaren aurrean Construcciones Brues eta ADU 18-La Modelo interbentzio eremuko Konpentsazio Batzordeak jarritako apelazio-errekurtsoan Udal hau agertzea onartu.

\* Alfonso Legorburu Ortiz de Urbina Prokuradoreari ahalmen orokorra ematea, aipatutako diligenzietan agertzeko.

\* José M<sup>a</sup> Abad Urruzola Zuzenbiden lizentziatua izendatu, aipatutako prozesuan Udala defendatzeko.

\*Honako Dekretuaren berri ematea Udalbatzaren hurrengo osoko bilkuran.

Alejandra Iturrioz Unzueta alkate andreak agindu eta sinatu du, Ordizian, bi mila eta zazpiko martxoaren hogeita bederatzian, hori guztia, nik, Ordiziako idazkariak, egiaztatu dut.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

### Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

#### Alkatea and.

Brues SAK Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusira (EAEAN) jo duela adierazi du, Unanueko labeen egindako akatsak subsidiarioki egiteko Udalaren alde erabaki duen epaiarengatik, Gipuzkoako Administrazioarekiko auzi-Epaitegiak emana.

Errekurtso horretan agertuko da Udala.

### Eztabaida

Abierto el turno de intervenciones por parte de la Sra.Alcaldesa se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

#### Alkatea and.

Brues SAK Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusira (EAEAN) jo duela adierazi du, Unanueko labeen egindako akatsak subsidiarioki egiteko Udalaren alde erabaki duen epaiarengatik, Gipuzkoako Administrazioarekiko auzi-Epaitegiak emana.

Errekurtso horretan agertuko da Udala.



**Jakinaren gainean.**



Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du .

**10.- Alkatetzaren 283 zenbakia duen dekretuaren berri ematea.**

**283.DEKRETUA**

**HONAKO HAU IKUSITA:**

- 2006ko abendauren 15ean Alkateak egindako 1066 dekretu bidez, Ordiziako P-21 Merkatal Zentroko jabeen elkarteak eskatutako konponketak egitea ukatu zen eta horren aurka jarri dute 159/2007 auzi-errekurtsoa.
- Donostiako 2.administrazioko Auzi Epaitegiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren idazkariaren errekerimendua, jatorrizko espediente administratiboa bidaltzekoa.

**HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

Udalaren agerraldia onartzea, 2006ko abenduaren 15eko 1066 dekretuaren aurka P-21 Merkatal Zentroko jabeek jarritako Administrazioarekiko Auzi-errekurtsioan.

\*M.Luisa Aranguren Letamendia Prokuradorearen alde ahalmen orokorra eman, aipatutako diligenzietan agertzeko.

Ana Urkizu Kerejeta, Zuzenbidean lizentziatua eta Udal honetako behin behineko idazkaria izendatu aipatutako prozesuan horren defentsa egiteko.

Espediente administratiboa Donostiako 1. Auzi Epaitegira.

Espedienteetan interesa duten guztiei jakinarazi Dekretu hau, eta Autoetan bederatzi eguneko epean agertzeko moduan izan daitezen jakinarazi, pertsonalki egin beharko da jakinarazpen hori.

\* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

**Jakinaren gainean geratu da Osoko Bilkura.**



Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du.

**11.- Galde-eskaria.**

Ez da izan.



Eta beste aztergairik ez dagoenez, Alkate andreak bukatutzat eman du bilera eta nik, Behin-behineko Idazkariak, bertan esandakoa honako honetan jaso eta ziurtatu egin dut.

